



EBAZPENA, 2018KO URTARRILAREN 12KOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ EPEA IREKITZEN DEN PLAZAK ORDENATZEKO, HORI BAITA DEITUTAKO LEHIAKETAK ESLEITZEKO AZKEN FASEA

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2015eko uztailaren 9ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat erreserbatzen diren I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarridun lanpostuak hornitzeko lehiaketa berezien oinarri orokorrak onartu ziren.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko maiatzaren 22ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat erreserbatzen diren III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C berariazko osagarridun lanpostuak hornitzeko lehiaketa orokorraren deialdia eta oinarriak onartu ziren.

Deitutako plaza guztiak esleitzeko prozedurak arautzen dituzte bi xedapenek, eta ezartzen dute *lehiaketa edo kidego batean baino gehiagotan parte hartu dutenek lehentasun-hurrenkeraren arabera ordenatu beharko dituztela plaza guztiak.*

Horretarako, Funtzio Publikoko sailburuordea gaitzen da, ebazpen bidez 5 eguneko epea ireki dezan, zenbait lehiaketatan esleipendun izan daitezkeen pertsonen lehentasunak ordena ditzaten.

Gaikuntza horri jarraikiz, deitutako lehiaketa espezifikoetako eta lehiaketa orokorreko merezimendu guztien balorazioaren behin betiko emaitzak argitaratu ondoren,

XEDATZEN DUT:

LEHENENGOA.- Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 5 egun balioduneko epea irekitzea, lehiaketa edo kidego batean baino gehiagotan parte hartzen duten funtzionarioek lehiaketan aurrera egin duten kasuan plazak ordenatu ditzaten eta, hala, ondoren, deitutako lehiaketak esleitzeari ekiteko.

BIGARRENA.- I. eranskinean xedatutakoaren arabera deitutako plazak ordenatzeko prozedura arautzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzeko agintzea, 2018ko urtarrilaren 15ean, lehiaketak arautzen dituzten oinarri orokorretan jakinarazpen-ondorioetarako ezarritako lekuetan.

- o Internet: www.euskadi.eus/concurso
- o Intranet: Jakina/Langilearen ataria

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 12a



Andrés ZEARRETA OTAZUA
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA

I. ERANSKINA

1.- Helburua:

5 egun balioduneko epea irekitzea, lehiaketa edo kidego batean baino gehiagotan parte hartzen duten funtzionarioek lehiaketan aurrera egin duten kasuan plazak ordenatu ditzaten eta, hala, ondoren, deitutako lehiaketak esleitzeari ekiteko.

Horretarako, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 5 egun balioduneko epea irekiko da, 2. puntuan sartzen diren langileek plazak ordenatzeko eskabideak izapidetu ditzaten.

2.- Eremu subjektiboa:

Lehiaketa edo kidego batean baino gehiagotan parte hartzen duten funtzionarioak, baldin eta, deialdietan eskatutako baldintzak betez, eskatutako gutxieneko puntuazioa gainditu badute eta deitutako zenbait lehiaketatan esleipendun izan badaitezke.

3.- Eremu objektiboa:

Hona hemen arautze honen helburuak:

- Plazak ordenatzeko eskabideak izapidetzea.
- Eskabiderik ez badago: Plazak ofizioz ordenatzea.
- Lehiaketan atzera egitea.

4.- Plazak ordenatzeko eskabideak izapidetzea.

4.1.- Eskabideak, oro har, Jakina/Langilearen Atarian eskura dagoen aplikazioaren bidez izapidetzen dira. Lehiaketa.

Izapide honetan, onartuta ageri diren plazak ordenatu behar dira; alegia, deialdian eskatutako baldintzak betez, prozesuan aurrera egiteko gutxieneko puntuazioa gainditu duenean bakarrik ordenatu behar ditu plazak interesdunak.

Lehiaketen artean bakarrik hautatu ahal izango da plazen hurrenkera, plazak tartekatu ere bai nahi izanez gero, baina inolaz ere ez lehiaketa bakoitzean ezarritako plaza-hurrenkera aldatu.

Eskabide horretatik, jaso izanaren agiria inprimatu ahal izango du interesdunak, eta onartutako plazak eta plazen hurrenkera agertuko da bertan. Izapide hori amaituta egongo da, eta, hortaz, eskabidea baliozkoa izango da soilik plaza guztiak

ordenatzen direnean eta hurrenkera hori onartzen denean; orduan inprimatu ahal izango da jaso izanaren agiri hori.

5 eguneko epean, nahi adina aldiz aldatu ahal izango da hurrenkera hori, baina egindako azken ordenazioa baino ez da izango balioduna. Horretarako, egunari eta orduari erreparatuta azkena grabatu den eskabidea hartuko da kontuan.

Behin epe hori bukatuta, hurrenkera ezingo da aldatu.

4.2 Halaber, plazak internetez bidez ere ordenatu ahal izango dira, 4.1. zenbakian xedatutakoarekin bat:

www.euskadi.eus/concurso

Horretarako, lehiaketaren aplikaziorako sarbidea ematen duen PINa erabili beharko da; parte hartu duten lehiaketetarako behin-behineko onarpena eman zitzaienean bidali zitzaien parte-hartzaileei pertsonalki.

5.- Ordenatzeko eskabiderik ez izatea:

Ezarritako epean eskabiderik izapidetzen ez bada, plazak ofizioz ordenatuko dira, ordena honi jarraikiz, hurrenez hurren:

1. Lehiaketa espezifikoetako plazak lehenetsiko dira lehiaketa orokorreko plazen aurretik.
2. Lehiaketa espezifikoaren artean, lehiaketa bakoitzaren bloke osoko antolatuko dira, EHAA-n deialdiak zein hurrenkeratan argitaratu ziren kontuan izanda:
 1. Osasuna
 2. Lurralde-antolamendua
 3. Ekoizpen-sektoreak
 4. Administrazio-kudeaketa
 5. Gizarte Laguntza
 6. Erakundea
 7. Ekonomia
 8. Juridikoa
 9. Kultura-ondarea
 10. Industria eta energia
 11. Estatistika
 12. Euskara
 13. Hezkuntza
 14. Ingurumena
3. Lehiaketa espezifiko bakoitzaren barruan, eta eskabide bat baino gehiago duten parte-hartzaileen kasuan (eskabideak kidego bat baino gehiagotakoak direlako), aurkezpen-hurrenkeraren arabera ordenatuko dira eskabideak, eta lehendabizi aurkeztutakoa lehenetsiko da.

6-. Atzera egiteak

Lehiaketan atzera egiteak lehiaketa horretan eskatutako plaza guztietan parte hartzeari uko egitea esan nahi du.

Lehiaketako lanpostuen behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen denean bukatuko da lehiaketan atzera egiteko epea.

Ordenatze-fase honetan, parte hartu duzun lehiaketetan edo kidegoetan atzera egiteko aukera ere emango zaizu.

Aukera hori hautatzen baduzu, ordenatu behar dituzun plazen artetik desagertu egingo dira lehiaketa horri dagozkion plaza guztiak.

